

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2026ko maiatzak 29 · 1398 zenbakia



61. euskal jaia



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritsi
gure webgunera



·Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

OSASUN GIDA

DENTISTAK

Kelagile zkia: 29007123

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar
943 20 72 17 | 680 42 28 08
amaia@esnaoladontologia.com

arat.
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com @arat_klinika

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
R.P.S. 72/19

San Agustin Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental

T: 943 70 00 82

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

**Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnca, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

SONRISALUD
INSTITUTO DENTAL AVANZADO

**Ortodontzia | Inplantologia
Hortz estetika | Tratamenduak**

Toribio Etxebarria, 23 behe, EIBAR
943 23 14 14 · www.sonrisalud.es

RPS 74/23

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel.: 943 70 23 85

GINEKOLOGIA

**Dra. Laura
Martinez** **Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
979 kolegiatar zkia.

- INDIATERAPIA
- KHOL LESIOAK
- punción seca TRATAMENDUAK
- k-stretch + HIPOPRESIBOAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20
T.L.F. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1089 kolegiatu zkia.

I. Ojanguren, 2 678 746 617

Julian
Etxebarria, 7 688717529

muina
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Zorlu Pelbikoa · Fisioterapia orokorra · Talde saioak
Iruñe Alberdi Sarobe

Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eu



Txikitatik dabilta boloetan Bitor Astigarraga eta Bitor Ugarteburu. Asola Berri zaharrean lehenik eta berrian gero, hiru-txirloaren erreferente bihurtu dira eibartarrak. Orain, omenaldia jasoko dute ekainaren 6an, Asola Berrin eta Ixuan.

eta kitto!
eusgara elkarteak

ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruene Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruene Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Iruene Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Kontseiluak deituta Iruñean egingo den manifestaziora joateko deia

...eta kitto! Euskara Elkartek bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak deituta ekainaren 13an, zapatua, “Euskaltza-leon Martxa” izenburupean Iruñean egingo den manifestazioarekin. Ekimenaren helburua da hizkuntzaren biziberritzearen aldeko aldarria egitea, “Euskaraz bizitzeko behar den dena” lelopean. Mobilizazioa, hiru zutabetan banatuta, 17:00etan hasiko da, Gazteluko plazan elkartu eta ekitaldi politikoarekin amaitzeko. Debabarreneko hainbat herritan autobusak antolatuta dira, baita Eibarren ere. 15:00etan irtengo da Azitainetik, Gure Kaiola paretik, 15 euro balio du eta autobusean bertan ordainduko da. Eibarko autobuserako izena emateko AEK euskaltegira (943 20 13 79) eta ...eta kitto! Euskara Elkartera deitu daiteke (943 20 09 18). Ekainaren 7ra arte eman daiteke izena. ...eta kitto!-k dei egiten die eibartarrei mobilizaziora joan daitezen, “bete dezagun Iruñea euskaltzalez!”

...eta kitto! Euskara Elkartea

Hortik esanak



Larunbatean Loiun jazotako ostean Zupiriak egindako lehen adierazpenetan «atekabetuta» azaldu zen: «Ez zen konpontzeko modua». Horiek entzunda pentsatu zitekeen Segurtasun sailburuak, bere erara bada ere, autokritika egiteko baliatuko zuela Eusko Legebiltzarreko agerraldia. Hala, hitzaldiaren hasieran adierazi du jazotakoa bere gain hartu duela, baita beste modu batera jardun zitekeela ere. Baina, diskurtsoaren muinak oso bestelako norabidea erakutsi du. Zupiriak polizien jarduna justifikatu du, nahiz eta haien jokabideak nazioartea asaldatu. Ertzainek «ordena eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna» bermatzeko «ahal zutena egin zuten», eta «polizia lerroa mantentzen» saiatu ziren «probokazioen» eta «erasoen» aurrean. Esandakoak zalantzan jartzeko moduko bideo bat erakutsita hitz egin du, gainera.

Hain zuzen, fokua polizien jardunetik desbideratuz, sailburua «probokazioez», «ezker muturraz» eta ETaz —2018an desegin zen erakunde armatuaz— aritu da flotillako kideez eta aireportuan zen babes sareaz hitz egitean; aurrez Ertzaintzako sindikatu korporatiboek egin bezala. Izan ere, adierazi badu ere Ertzaintzak ez zuela inor bere «ideologia edo aktibismoagatik» kolpatu, haren hitzaldiak izan du antzekotasunik Falangearen mobilizazioaren harira Gasteizen izandako istiluei emandako erantzunarekin. Oraingoan, azpimarra berezia egin du elementu hauetan: «Ertzaintza gorrotatzen duten» eta poliziaren aurka dauden ezker muturreko mugimenduak daudela, eta flotillako bi kide ETako kide izateagatik zigortu zituztela. «Garai bateko suaren erraustak oraindik bizirik daude», esan du, Ertzaintzaren barruan bizirik egon daitekeenari erreparatu nahi izan gabe.

Iosu Alberdi (Berria)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POTIJO. → Buztinezko urontzia. Helduleku biribila dauka eta zulo bi: ura sartzeko muturra zabala, eta edatekoa estua. Gantxil. Gaztelera «botijo».

“Eibarren oso normala zan, taillarretako eta obretako bihargiñendako ur billa iturrira juatia karrua bete potijokin”.

POTOLA. → Andrazko lodia, sendoa. “Jostunak hartu dau bere kontu, Maria potolia liraintzia”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ZAPATUA 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 31
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 1
EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre, 4)
MARTITZENA 2
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 3
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
EGUENA 4
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
BARIXAKUA 5
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Juana M^a Baskaran Baskaran. 94 urte. 2026-05-20.
- M^a del Pilar Palmero de la Osa "Maruja". 89 urte. 2026-05-21.
- M^a Mercedes Perez Lopez. 92 urte. 2026-05-23.
- Fernando Santin Jimenez. 77 urte. 2026-05-26.
- Jose Bahamonde Souto. 91 urte. 2026-05-26.
- Jose Uzkudun Garitagoitia. 85 urte. 2026-05-26.



Martitzenean aurkeztu zuten Eibarren bosgarrenez egingo den martxa solidarioa. Aurten, berritasun gisa, oinez edo korrika egiteko aukera eskainiko dute. SILBIA HERNANDEZ.

Eibarko Minbiziaren Aurkako Martxarako dortsalak salgai daude

Minbiziaren Aurka Gipuzkoa elkarteko ordezkariek eta Jon Iraola Eibarko alkateak aste honetan aurkeztu dute ekainaren 6an Eibarren egingo den Minbiziaren Aurkako Bosgarren Martxa, laguntzaileetako asko elkartu zituen ekitaldian.

SILBIA HERNANDEZ

Azaldutakoari jarraituz, aurtengo edizioa berritasun batekin dator: ohiko 3 kilometroko herri-martxarekin batera, 5 kilometroko lasterketa egingo da, lehenengoz, korrika egin nahi dutenek horretarako aukera izan dezaten. Antolatuzaileek argi laga nahi izan dute ez dela izango lasterketa, eta ez dela sailkapenik ezta saririk egongo. Proba berri honen irteera-ordua 10:40ean izango da, Untzaga plazatik, eta ohiko martxa (oinezkoa), berriz, 11:00ean hasiko da, leku beretik. Bestalde, Martxaren ibilbidea Eibarko Ustekabe Txarangako kideek gidotuko dute.

Aurreko edizioetan bezala, helburua bikoitza dela adierazi dute: “Minbiziaren aurkako ikerketa bultzatzen jarraitzearen garrantzia ikusaraztea, eta hurbiltasun eta babes mezua helaraztea gaitasunarekin bizi diren pertsonei eta haien familiei”.

Ibiltzeko zein korrika egiteko izen-emateak ondorengo esteka honetan egin daitezke jada: <https://enmarcha.contraelcancer.es/eu/ekitaldia/5-martxan-minbiziaren-aurka-eibarren>.

Horrez gain, Martxarako izen-emateak presentzialki egin ahal izango dira, datorren ekainaren 5era arte, jarraian zehazten den tokietan: Untzaga gizarte zentroan, Beheko Tokia jubilatuetan, Amaña es la Caña kioskoan, Urkiko jubilatuetan, Torrekua zentro sozialean, Ipuruako jubilatuetan eta Minbiziaren Aurka Eibarren (Ardantza kalea, 11). Gainera, bihar zapatua (maiatzak 30) Minbiziaren Aurka Gipuzkoa elkarteko boluntarioak martxan parte-hartzeko kamisetak saltzen egongo dira, 11:00etatik 14:00etara, Guridi taberna pareko arkupeetan.

Online egin diren izen-emateen kasuan, kamiseta eta dortsalen jasotzea Minbiziaren Aurka Eibarren egoitzan (Ardantza kalea, 11) egin ahal izango da, hurrengo egunetan: ekainak 3, eguaztena (10:00etatik 14:30era eta 15:30etik 18:00etara); ekainak 4, eguena (10:00etatik 14:30era); eta ekainak 5, barixakua (10:00etatik 14:30era).

Jon Iraola alkateak herritar guztiak ekimenean parte hartze- ra animatu ditu: “Oinez edo korrika, elkarrekin egoteko egun bat da baina, batez ere, erakusteko herri bezala elkartuta gaudela denok hurbiletik ukitzen gaituen kausa baten aurrean”.



Eibarko PROFESIO LIBERALAK

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
 Fermin Calbeton 4, 3 esk.
 Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE
 Fermin Calbeton 4, 3 D lokala
 Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE
 Fermin Calbeton 13-15
 Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.com
consultores@gaurve.es

GESTILAN
 Zezenbide 4
 Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
 Fermin Calbeton 4, 3 esk.
 Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
 Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



Murrategiko bizilagunak erabat abandonatuta daudela salatu dute

S.H. Eibarko Behetarrak auzo elkarteak Murrategiko egoeraren berri eman du aste honetan, eta Eibarko Udalaren jardun eza eta komunikazio falta salatu ditu ohar baten bidez, auzoko birgaitze prozesua erabat geldirik dagoela azpimarratuz. Murrategi Eibarko ekialdean, Azitain inguruan eta Ego ibaiaren beste aldean dago eta, kokaleku natural eta historikoa izan arren, “hirigintzaren aldetik erabat degradatuta” dagoela diote bizilagunek. Adierazi dutenez, Udalak aspalditik daki hori baina, hala ere, ez da hobekuntza esanguratsurik gauzatu. Aste honetakoa gai honen inguruan argitaratzen duten bigarren prentsa-oharra da; lehena 2025eko ekainaren 1ean kaleratu zuten, eta ordutik egoerak bere horretan jarraitzen duela kexatu dira.

Azaldu dutenez Birgaitze Integraleko Plan Berezian (BEPB) jasotako epeak ez dira betetzen ari, eta 2023rako aurreikusitako urbanizazio proiektua ez da martxan jarri oraindik. Halaber, gogorarazi dute 2025eko abenduaren 1ean Beheko Tokian egindako auzo-bi-

leran alkateak azaldu zuela Udala Madrilekin kudeatzen ari zela Murrategi auzorako esleitutako 3 milioi euroko partida, eta arazoa 2025 amaierarako konponduta egongo zela. Bileran hartan Udalarekin elkarlanean aritzeko prest agertu zen elkarteak, eta auzoaren lehentasunak elkarrekin adostea proposatu zuen. Elkartearen arabera, alkateak deitzeko konpromisoa hartu zuen, baina ez da halakorik gertatu. Auzo elkartearen arabera, azken sei hilabeteetan ez dute Udalaren erantzun ofizialik jaso, nahiz eta hilero Alkatezari kontsultak helarazi. Elkarsteak salatu du egoera honek “Udalaren jarrera pasibo eta axolagabea” agerian uzten duela, eta horregatik erabaki dutela bigarren prentsa-oharra argitaratzea. Horrekin batera, Eibarko Udalari eta alkateari premiazko bilera bat eskatu die, Murrategiko birgaitze prozesua “behingoz martxan jartzeko, eta atzerapen gehiago saihesteko”. Elkartetik adierazi dutenez, auzokideak “nazkatuta eta abandonatuta” sentitzen dira, eta Udalaren aldetik “enpatia eta konpromiso handiagoa” eskatu dute.

Gidabaimena euskaraz ateratzen duten eibartarrentzat sariak banatuko ditu Akebaik

S.H. Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak abian jarri duten *Gidabaimenak euskaraz!* ekimenaren bitartez, Eibarren Akebaik 100 euroko erosketa bonua oparituko die gidabaimena euskaraz gaintitzen duten hiru eibartarri. Horretarako, herriko autoeskolen laguntza izango du Akebaik. Hauek dira euskaraz atera daitezkeen proba teorikoak: AM, A1, A2, A, B, C1 – C, D1 – D eta E. Bonua jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak hauek dira: Eibarren erroldatuta egotea; Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gaintitzea; eta azterketa teorikoa 2026ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean gaintitzea. Eskaria egiteko, eibarrena-kebaik@gmail.com helbidera idatzi behar da, abenduaren 31 baino lehen, ikastaroa eta/edo azterketaren matrikula ordaindu izanaren bankuko agiria eta azterketa gaintitu izanaren agiria erantsita. Informazio gehiagorako helbide horretara idatzi, edo 943 708 426 / 688 854 965 telefonoetara deitu daiteke (WhatsApp bidez ere bai). Kanpainari buruzko xehetasunak kontsultatzeko: gidabaimenakeuskaraz.eus.





Etxebizitzaren arazoari buruz arituko da Oskar Matute ekainaren 4an

S.H. Oskar Matute EH Bilduko kongresukideak etxebizitzaren arazoari buruzko hitzaldia emango du egueanean (ekainak 4), 18:30ean Portalean. “Politika publikoen garaia da” izenburuari jarraituta, gaur egun gizartean eta politikan presentzia handia duen gaia landuko da saioan zehar: etxebizitza duin bat eskuratzeko zailtasunak, alokairuen garestitzea, gazteen emantzipatzeko arazoak eta administrazio publikoek egoera honen aurrean bete behar duten rola, besteak beste. Jarduera irekia izango da, eta gaztelaniaz arituko da Matute.

Kanpoko igerilekuak eta Txaltxa Zelaiko ur-txorrotak ekainaren 8an zabalduko dituzte

S.H. Eibarko Udalak jakinarazi du kanpoko igerilekuak eta Txaltxazelaiako ur-txorrotak ekainaren 8an jarriko direla martxan, eta udako denboraldia irailaren 13ra arte luzatuko dela. Instalazioek, beraz, udako hila-beteetan aisialdirako eta freskatzeko gune nagusietako bat eskainiko dute herrian. Instalazioak udarako prest egoteko lanak azken fasean daude.

Udal instalazioek ordutegi berezia izango dute uda garaian. Ekainean eta uztailean, igerilekuak 10:30etik 20:30era zabalduko dituzte. Abuztuan, ordutegia zertxobait murriztuko da (10:30etik 20:00etara), eta irailaren 19:00etan itxiko dituzte. Horrez gain, aurtun berriz ere taberna-zerbitzua eskainiko dela adierazi du Udalak.





5. Martxan

minbiziaren aurka Eibarren

Nobedadea: 5 km korrika

Eibar. Untzaga plaza

10:40h Korrika - 5 km 11:00h Martoa - 3,3 km

Informazio gehiago: [94345 099 888](tel:943450988)

ekainak **6**

Inskripzioak:



Salmenta puntuak:
Untzaga Gutsun Eliza Elkartea / Jaiakaren Elkartea Behoko Tokia / Amalio eta Carlekoak
Uria jaiakaren etxea / Tokiua zerbitzu soziala / Ispua jaiakaren etxea / Mintzaren Aurrerakuntza Eibarren egiazko Ordutegia 117

Ureztako babesleak:



Zilarreko babesleak:






Brontzeko babesleak:







Laguntzaileak:



Memoria historikoa dantzara, 61. Euskal Jaian

Kezka dantza taldeak 'Gerrako ibilerak dantzan' ikuskizuna eskainiko du bihar, Joseba Tapiaren 'Agur Intxorta Maite' diskoa oinarri hartuta. 300 dantzarik eta zuzeneko musikak bat egingo dute 36ko Gerraren memoria, komunitatea eta euskal kultura uztartuko dituen emanaldian. Ikuskizunaren ostean, plaza dantza egin nahi duen herritar orori zabalduko zaie.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Musika, dantza eta memoria historikoa uztartuko dituen emanaldi berezia hartuko du Untzaga plazak datorren zapatuan. 61. Euskal Jaiaren barruan, Kezka dantza taldeak 'Gerrako ibilerak dantzan' ikuskizuna eskainiko du, Joseba Tapiaren Agur Intxorta Maite diskoa oinarri hartuta. 36ko Gerraren memoria plazara eramango duten ikuskizuna izango da, baina baita komunitatea, transmisioa eta herri kultura ospatzeko ekitaldia ere.

Idea ez da berria. Oier Araolaza Kezkako dantzariak azaldu duenez, proiektuaren lehen haziak duela urte batzuk erein zituzten, Juan Antonio Urbeltz Argia Dantza Taldeko zuzendariarekin batera. Tapiaren diskoak dantzarako aukera handiak eskaintzen zituela ikusi zuten hasieratik. "Batetik, gure historiarekin eta memoriarekin oso lotuta dagoen lana da; bestetik, piezak oso dantzarriki dira", azaldu du.



Garai hartan proiektua martxan jartzea posible izan ez bazen ere, ideia ez zuten inoiz albo batera utzi. “Karpeta batean gordeta geratu zen, baina beti izan dugu buruan”, dio Araolazak. 36ko Gerraren 90. urteurrena iritsi denean ikusi dute momentua heldu dela proiektua berriz mahai gainera ateratzeko. Gainera, aurten bertan 25 urte betezen dira Agur Intxorta Maite diskoa argitaratu zenetik. “Joseba Tapiak egin zuen lana zoragarria da, eta urte guzti hauen ondoren ere guztiz indarrean dago”, nabarmendu du.

Memoria ariketa kolektiboa

Ikuskizunaren helburu nagusietako bat memoria historikoa belaualdi berriei transmititzea da. Antolatzaileen ustez, Eibarren badago 36ko Gerraren inguruko kontzientzia handia, baina transmisioa etengabe berritu behar dela uste dute. “Urteroz gazte berriak datoz, eta memo-



Oier Araolaza, Kezka dantza taldea. IRATIALVAREZ

ria ariketa hori egin behar dugu”, azaldu du Araolazak.

Eibar eta ingurua gerraren erdigune izan ziren hilabete luzez. Kalamua, Akondia eta Intxorta inguruan bataila gogorrak izan ziren, eta herriak gertutik bizi izan zuen frontearen errealitatea. Hori guztia dantzaren bidez gogoraraztea eta gaur egungo herritarrengana ekarzea da asmoa. “Dantzaren bidez memoria hori transmititzea beste aukera ederra da”, dio.

Baina emanaldiak ez dio iragari begiratuko soilik. Komunitatearen ideia ere erdigunean egongo da. Dantza kolektiboaren bidez, adin, genero eta jatorri desberdinetako pertsonak elkartzeko dira plazan. “Eskutik helduta eta elkarrekin dantzatzu ere herria eraikitzen da”, azpimarratu du.

“Ni”-tik “gu”-ra

Ikuskizunaren oinarrian Juan Antonio Urbeltzek urteetan lan-

EUSKARA

ERRITMO BIZIAN

HABEREN AZTERKETAK

prestatzeko udako ikastaroak

Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat

Uztailean eta irailean

Aurrez aurre (B2 eta C1)

Autoikaskuntza (B1, B2 eta C1)

Eibarko Udal Euskaltegia
Portalea eraikina - Bista Eder kalea 10, 2. solairua
Telf.: 943 700912 • WhatsApp: 688 698566
E-posta: euskaltegia@eibar.eus

informazio gehiago



1. Quico Puges, Arkaitz Miner, Joseba Tapia eta Iraide Ansorena. IDOIALAHIDALGA 2. Agur Intxorta Maite (2001) Joseba Tapiaren eta Koldo Izagirren diskaren azala. 3. Gerrako ibilerak dantzan, 2026-05-14. OIERARAOLAZA - KEZKA CC-BY-SA



du duen ideia bat dago: “Ni”-tik “gu”-ra igarotzea. Araolazak gogorarazi duenez, Urbeltzek sarritan esan izan du herri batek ez duela etorkizunikikuspegi indibidualetik eraikitzen bada. “Euskal kulturak eta Euskal Herriak aurrera egingo badute, komunitatean egin beharko dute”, azaldu du.

Idea hori dantzan ere islatzen dela diote. Borobilean dantzatzeko moduak batasuna eta elkartzuna irudikatzen ditu, eta euskal dantzetan oso presente dagoen elementua da. “Borobilean dantzatzan dugunean sortzen den sentimendua oso berezia da”, dio Araolazak. Horregatik, dantzaldia ere ikusle guztiei zabalik egongo den ospakizun kolektibo moduan planteatu dute.

300 dantzari eta Joseba Tapia plazan Emanaldian Agur Intxorta Maite diskoko 11 kanta interpretatuko dituzte. Joseba Tapiak berak joko ditu zuzenean, Iraide Ansorena,

>>> Dantzaren bidez memoria hori transmititzea beste aukera eder bat da

Quico Puges eta Arkaitz Miner musikariekin batera. Lehenengo lau piezak azken hilabeteetan entseguetan buru-belarri aritu diren 300 dantzarik eskainiko dituzte. Gehienak eibartarrak izango dira, baina Elgoibar, Ermua, Deba eta Eskoriatzatik ere etorriko dira parte-hartzaileak.

Lehen zati koreografiatu horren ostean, plaza guztientzat zabalduko dute. Kalejirak, baltsak eta dantza herrikoiak egingo dituzte, ikusleak ere parte hartzera gonbidatuz. “Helburua ez da jendea begira egotea bakarrik; gurekin batera dantzan

eta ospakizunean parte hartzea nahi dugu”, azaldu du Araolazak.

Memoriaz eta zintzotasunaz

Elkarrizketaren amaieran, memoria historikoaren inguruko hausnarketa ere egin du Kezkako ki-deak. Azken urteetan zabaldu den berrikuspen historiko jakin baten aurrean, memoria lantzerakoan zorroztasuna eta zintzotasuna beharrezkoak direla defendatu du.

“Egia da denek sufritu zutela, baina ezin dugu ahaztu militarrek Errepublikan legitimo bat zapaldu zutela eta ondoren 40 urteko diktadura etorri zela”, adierazi du. Bere ustez, gertatutakoa gogoratzea eta testuinguruan jartzea ere memoria arikeraren parte da.

Horregatik guztiagatik, datorren zapatuko emanaldia ez da izango dantza ikuskizun bat soilik. Memoria, komunitatea eta herri kultura plazan partekatzeko gonbidapena izango da.

DEBABARRENEAN ZEHAR



Saio honetan, eskualdeko herrietako ereserki eta kanta ezagunak entzun ditugu, herri bakoitzaren nortasuna, historia eta giroa musikaren bidez gerturatuz. Helburua gure eskualdeko musika eta memoria kolektiboa balioan jartzea izan da, askotan oharkabean pasatzen diren baina herritarren identitatearen parte diren doinuak ezagutaraziz.

ALBISTEAK

Euskalgintzaren Kontseiluaren Iruñeako manifestazioa joateko autobusak antolatuta dituzte Debabarrenean.

Ermuko saihesbidearen aldeko plataformak salatu du kamioien trafiko murrizketak ez direla oraindik indarrean sartu.



Mai 29

ANTZER.	EL ENCARGO	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
JAIK	EUSKAL JAIA	19:00 etik	HERRIGUNEAN (EIBAR)
TOPAK	PILOTA EGUNA	17:30	KALEGOEN (ELGOIB.)
JAIK	DANTZA: IKASTURTEAMAIERA	18:30	ANTZOKIA (SORALUZE)
KALEJIRA	BIZI POZA TXARANGA	19:00	MENDARAZABAL (MENDARO)
SOLASAL.	OREKARIK	19:00	PASEALEKUA (DEBA)
ANTZER.	SUPITUKI SHOW	19:00	ISPILUEN GELA (DEBA)

Mai 30

KIROLA	ZUMBA JARDUERA	10:30	SAN PELAIO (ERMUA)
JAIK	EUSKAL JAIA	09:30 etik	HERRIGUNEA (EIBAR)
MENDIA	II. MENDI EGUNA (IBILBIDE MOTZA EDO LUZEA AUKERAN)	07:00 09:30	PLAZA (MENDARO)
IRTEERA	INTSEKTUEN SAFARIA: BEGIRADA DESBERDIN BAT	10:00	ERROTABERRI (ITZIAR)
JAIK	ZURRUNBILO EGUNA	10:00 etik	HERRIGUNEA (DEBA)
ANTZER.	INPROBISAZIO TAILERRA	10:00	ISPILUEN GELA (DEBA)
ANTZER.	ADRIENE BERGSON-JOHNSON	19:00	ISPILUEN GELA (DEBA)
BISITA	DEBA-ZUMAIA ITSASOZ	17:30	ANES ARRINDA (DEBA)
MUSIKA	UDABERRIKO KONTZERTUA	19:00	ELIZA (MALLABIA)
MUSIKA	HONDORA	20:00	ONDARGAIN (DEBA)

Mai 31

RALLYA	ARGAZKI RALLYA	8:30	DEPOR (EIBAR)
JAIK	TRINITATE EGUNA (LARUNBATETIK HASITA)	Egun osoa	ELGOIBAR
JAIK	TRINITATE EGUNA	Goiz osoa	MENDARO
ANTZER.	INPROBISAZIO TAILERRA	10:00	ISPILUEN GELA (DEBA)

“Algoritmo kuantikoez ez dute gauzak azkarrago egitea nahi bakarrik, bide berriak esploratzea baizik”

IZARO FERNANDEZ IRIONDO • Ikerlaria



Fisika gradua egin ondoren, Iزارo Fernandez Iriondok ingeniaritza informatikoari buruzko doktoretza amaitu zuen urtarrilean eta, orain, Biobizkaiko Neuroirudi Konputazionalerako ikerketa taldeko kidea da. Erronka ederra du aurretik talde horrek, fisika kuantikoa erabiliz alzheimerraren kontrako tratamendua bilatzen saiatuko baita.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **OIHANE ZABALA**

Alzheimerraren inguruko ikerketa hori egiteko, IBMren Donostiko Quantum System Two ordenagailu kuantikoa erabiliko du Biobizkaiko taldeak eta zeregin horretan berebizikoa izango da ikerlari eibartarraren lana. Hain zuzen ere, algoritmo kuantikoez ibiliko da bera eta Cleveland Clinic-en (AEB) egonaldia egin beharko du, han erabili baitzuten lehen aldiz IBMren ordenagailu kuantiko bat osasun ikerketarako.

Arin esanda, fisika kuantikoa erabilita alzheimerra ikertuko duzue. Agian zaila da, baina nola azalduko zenuke hori modu laburrean?

Alzheimerraren gaixotasunaren inguruan terapia berriak ikertuko ditugu. Gaur egun alzheimerrak ez du sendabiderik eta egiten dena da sintomak ahalik eta gehien atzeratzea edo diagnostikoa ahalik eta azkarren egitea, sintoma horiek ahalik eta beranduen etortzeko. Atzerako bidea ezin da egin oraindik. Alzheimerrak oso osagarri genetiko handia du, jakina da ezaugarri genetikoek asko baldintzatzen dutela gero alzheimerra garatu ala ez. Orduan, sare genetikoa aztertuko dugu jakiteko zein genek edo zein gene-konbinazioek duen erlazio gehien gaixotasun horrekin. Badaude jomuga batzuk, marka-

tuta ditugu zein gene diren garrantzitsuak, baina gene kopurua hain handia denez, ezinezkoa da denen konbinazioa begiratzea eta hori guztia. Beraz, proiektu hau bi gauzagarri da interesgarria: Batetik, proteina batzuen akumulazioak garunean sortzen duen kontaminazioa da alzheimerra eta sintoma kognitiboak memoria falta eta beste hainbat gauza dira. Paziente batzuek alzheimerra edukiko balute bezala dute garuna, proteinez kutsatuta, baina kognitiboki oso ondo daude. Paziente ‘erresilienteak’ esaten zaie. Ikusi da garunak sintoma horiek garatzen babesten dien babes-mekanismo bat duela. Orduan, babes mekanismo hori zein den jakitea nahi dugu eta zein genekin dagoen erlazioa. Horretarako, sare genetiko horiek aztertuko ditugu eta ikusi zeintzuk diren babes-mekanismo horrekin erlazionatuta daudenak, gero mekanismo hori ez dutenengan terapia berriak ikertzen saiatzeko.

Eta zein da bigarren gauza interesgarria?

Horrek nirekin du erlazio gehiago. Sare horiek aztertzeke, hain-hain handiak direnez, erreminta kuantikoak erabiliko ditugu. Orain arte algoritmo klasikoak erabili dira (estatistikoak, ordenagailu nahiko normalak...), baina orain algoritmo kuantikoak erabiliko ditugu. Algoritmo kuantikoez ez dute gauzak azkarrago egin



Izaro Fernandez Iriondok eta Biobizkaiko taldeak egingo duten ikerketak bide berriak ireki ditzake alzhemerraren inguruan. EKHI BELAR

nahi bakarrik, kontua ez da gaur egungo algoritmoen potentzia falta zaienik, baizik eta orain arte ikusi ez diren bideak esploratu nahi direla. Adibidez, garunean ditugun gene-sareetan milaka eta milaka gene daude, eta algoritmo klasikoekin ezin ditugu konbinazio guztiak aztertu, konputazionalki ezinezkoa delako. Beraz, printzipio kuantikoez baliatu nahi dugu ahalik eta gehien esploratzeko. Ez dugu esaten zerbait berria lortuko dugunik, baina esploratu ez diren bideak esploratuko ditugu.

Orain arte, fisika kuantikoa erabilia ez da alzhemerrera aztertu?

Ez. Teoria kuantiko asko egin dira, baina aplikazioak bilatu nahi ditugu. Horregatik izan du boom-a proiektu honek. Izan ere, maila teorikoan garatu diren algoritmo kuantikoak problema errealetara eramango ditugu.

Horretarako, IBMren ordenagailu kuantikoa erabiliko duzue. Nolako aukerak ematen ditu?

Ez dakit erabiltzera iritsiko garen. Izan ere, oso zaila da horrelako ordenagailu bat modu egonkorrean mantentzea. Ordenagailua txip moduko bat da eta txipa baldintza perfektuetan egoteko demaseko hardwarea

“Alzhemerraren gaixotasunaren inguruan terapia berriak ikertuko ditugu sare genetikoak aztertuz. Horretarako, erreminta kuantikoak erabiliko ditugu”

edo hozkailu erraldoia behar du, eta oso baldintza berezietan egon behar da erabili ahal izateko. Gaur egun, batzuek erabiltzen dute, baina erroreak ematen ditu eta, gero, ikerketa-lerro pila bat ireki behar dira errore horiek kentzeko. Oraindik ez da erabili guztiz modu perfektuan, baina simulazio txikiak egiten dira gauzak nondik nora doazen ikusteko. Uste dut proiektu honen helburua ez dela demaseko emaitzak lortzea, baizik eta osasun arloan ikerketa-lerro berriak irekitzea. Agian, etorkizunean demaseko inpaktua izan dezake, baina orain helburua hori da.

Zure eginkizuna zein izango da?

Elkarrizketa osoa eta
BIDEOA



Doktoretza urtarrilean amaitu nuen eta proiektu hau egiteko aukera irten zenean, bai ala bai egin behar nuela pentsatu nuen. Demaseko aukera da eta oso motibatuta nago. Gainera, ikerketa talde berarekin jarraituko dut eta oso pozik nago. Algoritmoen arloan arituko naiz lanean, baina hau talde-lana da. Gogotsu nago, baina baita zain ere, ez dakigulako zer aterako den. Egingo dugun guztia berria izango da eta ekarpen bat egingo du.

Lan hori egiteko AEB-ra joango zara egonaldia egitera. Zer egingo duzu han?


Ez dakit ordenagailua erabiltzera iritsiko garen, baina erreminta guztiak IBMrenak izango dira eta eurek erakustea baino hobirik, ez dago. Orduan, ez dakit noiz, baina hara joango naiz 2-3 hilabeterako, ahalik eta gehien ikastera eta informazioa xurgatzera.

Proiektua hastapenetan dago eta ez dakizue nora eramango zaituzten, baina zein da plana edo bide-orria?

Gutxi gorabehera, problema hau ebazteko modua berri diseinatzea da plana, eta ikustea kuantikoki nola diseinatuko litzatekeen. Diseinu hori egitea bakarrik, demaseko aurrerapausoa izango litzateke; problema hori ordenagailu batean exekutatzera iristea mundiala litzateke; eta emaitza horiek laborategian aztertzea eta onak diren edo balio duten ikustea, are gehiago! Hori da plana, baina ez dakigu noraino iritsiko garen.

Gaztea zara, doktoretza egin berri duzu, baina proiektu honek nolako esanahia du zure ibilbiderako?

Doktoretza amaitzerakoan atsedena hartzeko eta bi-daiatzeko tartea hartuko nuela nioen, baina hau suertatu da eta, hain justu ere, gaur egun mundu guztia ari da kuantikaren inguruan hitz egiten, kuantikako ikerketetan dirua inbertitzen ari dira, apustua egiten ari dira kuantikaren alde (funtzionatuko duen ala ez jakin gabe)... Datuen analisisian eta fisikan pasatu behar dugun azken hesia 'barrera kuantikoa' da, hori eta gero ez da ezer gehiago egongo. Ez dakigu apustu hori noraino iritsiko den edo ondo irtengo den, baina hori da azkenengo muga eta horren aldeko apustua egiten ari dira. **Kuantikaren bitartez, gaur egun geldirik dauden ikerketak libratu daitezke?**



“Proiektuaren helburua ez da demaseko emaitzak lortzea, baizik eta osasun arloan ikerketa-lerro berriak irekitzea”

Kuantikak lehen iristen ez ginen tokietara iristeko aukera ematen digu modu nahiko naturalean. Kuantikaren barruan hiru ikerketa-lerro nagusi daude: sensorika (sentsore kuantikoak erabiltzea, eta oso ondo ari dira garatzen eta funtzionatzen du), komunikazio kuantikoak (Internet eta horrelako gauzetan printzipio kuantikoak sartzea izango litzateke, baina oraindik ez da ikusi) eta konputazio kuantikoa (hori da nire lerroa eta orain ari da garatzen). Asko falta da oraindik, baina pozik nago, hori praktikara eramateko dirua inbertitu behar delako eta ezin zaiolako ezetz esan horrelako aukera bati.



IOKIN ELORTZA

Euskarak sendatzen du

Zorionez badira gorputza eta bihotza osatzeko farmazietan saltzen ez diren sendagaiak.

Ez datoz kutxa batean, ez dute prospekturik eta ez dira urarekin hartzen, baina sendatzen laguntzen dute. Gure herrian, horietako bat, euskara da.

Denok sentitu dugu noizbait euskaraz bakarrik ateratzen zaizkigun hitzak; nola azaldu bestela larri edo lehertuta nagoela, edo betekada batean. Hizkuntzak gerturatzen gaitu. Etxekoagoak egin, afinitatea sortu. Euskarak, azken finean, gure arteko distantzia txikitzen du.

Osasuna ez da gaixotasunik ez izatea soilik, ondo sentitzea ere bada. Entzuna sentitzea. Ulertua izatea. Eta horretan, hizkuntzak garrantzi handia dauka. Ez da gauza bera medikuak, farmaziako langileak edo inguruko pertsona batek “zer moduz zaude?” zure hizkuntzan esatea. Lasaitasuna ematen du. Konfiantza. Hurbiltasuna.

Gure lanean oso nabarmena da hori. Askori euskaraz hitz egiten diegunean aurpegia aldatzen zaie, erlaxatu egiten dira. Etxean bezala sentitzen dira, baita gu ere.

Euskara ez da komunikatzeko tresna bat soilik. Nortasuna ere bada. Lotura bat. Babesleku txiki bat, eta horrek gure ongizatean eragina dauka. Gure osasunean.

Horregatik, batzuetan, euskaraz entzundako “lasai”, “hemen gaude” edo “ondo aterako da” batek, botika batek baino indar gehiago eduki dezake. Ez gaitu sendatuko, baina hobeto sentitzen lagunduko digu. Eta, hori ere, osasuna da.

Zoritxarrez orain, noiz ez, euskarak gu behar gaitu, badirudi bere osasunak txarrera egin duela, lehen ona ez bazen, orain gehiago makaltzen ari zaigula. Eta berarekin, nola ez, gu ere osasuna galtzen goaz. Nork ez du askotan euskararen egoera ikusita bihotzeko mina sentitu.

Orain, berriz ere, guri dagokigu gure hizkuntza zaintzea, osatzea eta maitatzea, eta zoritxarrez, egoera ez da epelkeritan ibiltzekoa.

“Askori euskaraz hitz egiten diegunean aurpegia aldatzen zaie, erlaxatu egiten dira. Etxean bezala sentitzen dira, baita gu ere”

“Asola Berri boloen sehaska izan da, hemendik irten dira bolari onenak”

BITTOR ASTIGARRAGA ETA BITTOR UGARTEBURU • Bolariak



Oraindik lehia bizian daude Bitor Astigarraga ‘Pazi’ eta Bitor Ugarteburu ‘Caballo’, asteburu honetan amaituko baita 55. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa eta garaikurrak lortzeko aukera dute. Baina gertatzen dena gertatzen dela, ospatzeko aitzakia izango dute hurrengo asteburuan, omenaldia jasoko baitute Ixuan, Jose Angel Astigarragarekin batera.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**
Bideoa **OIHANE ZABALA**

Astigarraga anaiak eta Ugarteburu bizitza osoan ibili dira boloetan. Azken honen baserrian bolatokia zegoen eta, txikitatik lagunak izan direnez, euren jolastokia izan zen. Oraindik ere jolastokia da eurentzat, lehian aritzen den arren, lagun artean ibiltzeko aukera da-eta. Omenaldia ekainaren 6an jasoko dute, Asola Berrin jokatu den Lehendakari Sariaren eta Ixuan egingo duten bazkariaren ondoren, baina horrek ez du esan nahi boloetan egiteari lagako diotenik. Nola ez, Asola Berrin elkartu gara bi Bitorrekin, baina Jose Angel ezin izan zen egon, hankan ebakuntza egin berri diotelako.

Nola iritsi ziren boloak zuen bizitzara?

ASTIGARRAGA: 5-6 urte nituenean, aitari asko gus-tatzen zitzaien boloetan egitea. Matsarian merendero bat zegoen, Asola Berri izenekoa, eta kasualitatez honen aitzitxarena zen (Bitor Ugarteburu begiratzen dio), eta han egin ginen lagunak. Han hasi nintzen bola eskuetan hartzen, botatzen eta abar.

UGARTEBURU: Ni kalean jaio nintzen, baina 9 urteak bete arte han bizi izan nintzen eta betidanik ibili izan naiz boloetan. Asteburuero lagunak etortzen zi-

ren bazkaltzera, zerbait edatera eta boloetan egitera. Sasoi hartan denek egiten zuten boloetan.

Matsariakoa Asola Berri deitzen bazen, gero hona ekarri zenuten izena?

U: 1962an kalera bizitzera joan ginen eta Matsariako baserrian soziedade egin zen, Asola Berri izenekoa, eta jendeak bertara joaten jarraitu zuen. 1968an, sozieda-dea egin zen hemen eta Matsariakoa saldu egin zuten.

Sasoi hartan jende asko ibiltzen zen boloetan? Orain baino gehiago ala gutxiago?

A: Orain ezberdina da. Hemen adibidez, jendea domeketan ibiltzen da boloetan batzuetan, baina lehen zapatuetan eta domeketan tirada mordoa egiten zen. Jende pila bat egoten zen. Ni mutikoa nintzen, baina gogoratzen dut 20 lagunetik gora ibiltzen zirela boloetan jo eta su, egun osoan zehar.

Txikitatik ibili arren, norbaitek erakutsi zizuen jokatzeko? BIEK: Bai!

A: Adibidez, honen aitzitxak, umeren bat ikusten bazuen, beregana joaten zen erakustera. Aitak ere erakutsi zidan eta bertako jendeak ere esaten zizun gauzak nola egin. Horrela, poliki-poliki ikasten zoaz, besteek nola egiten duten begiratzen duzu. Gainera,



Asola Berri bigarren etxea da Bittor Astigarraga eta Bittor Ugartebururentzat. EKHI BELAR

boloa botatzen denean, bolatokiaren beste aldean norbaitek egon behar du boloa bueltatzeko, eta txikitik hori izaten zen gure lana. Milaka bola bota ditugu handik. Pezeta bat edo horrelako zerbait ordaintzen ziguten, eta horrekin txapak erosten genituen tiradak botatzeko. Poliki-poliki tirada gehiago egin genituen eta engantxatzen joan ginen.

Zein estilotako jokalariai zaretela esango zenukete?

A: Antzeko jokalariai gara biok. Botatzeko modua ezberdina dugu, baina nahiko antzera ibiltzen gara. Orain ere, Gipuzkoako Txapelketan, azken tiraldia gelditzen da eta txirilo gutxiko alde dago bion artean. Bolari bakoitzak bere estiloa du, jendea ezberdina da eta nork bere botatzeko modua du.

U: Batzuek polikiago botatzen dute, beste batzuek indar gehiagorekin...

A: Gero, bolatokiaren arabera ere ezberdina da. Batzuetan indar gehiago eman behar da, beste batzuetan gutxiago...

U: Bolatoki guztiak ezberdinak dira, baina txapelketako bola berdina izaten da. Orduan, ez da berdinduz portatzen toki guztietan.

Txikiak zinenetik gaur egunera arte, jokatzeko modua aldatu egin dela igarri duzue edo nahiko antzerakoa da?

U: Azken urteetan, bolatokietan boloa suabeago irtezen da, polikiago.

A: Gazteak ginenean, bolatokiak askoz ere zailagoak

LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA

Gaurve

Tfnoa. 943 202 461 Faxes. 943 201 125
 Fermin Calbeton, 13-15 www.gaurve.es

943 20 17 33
 eibarbus@eibarbus.com
 www.eibarbus.com

Botidanik esku onetan!

Isasi, 20

Eibarbus

Elkarrizketa osoa eta
BIDEOA



ziren. Asmo gehiago jarri behar zenuen, indar gehiago eman. Horregatik, guk indarrarekin botatzen ikasi dugu, baina suabe botatzen ere badakigu. Orain, gehiago dira bolatoki suabeak indartsuak baino.

Kirol honetan bereziki, esperientziak pisua duela uste duzue?

U: Bai, esperientzia oso garrantzitsua da. Hori bai, urteekin esperientzia irabazten duzu, baina indarra galdu (barreak).

Kirol gutxitan ikusiko da jende heldua eta oso gaztea elkarrekin lehian.

U: Bai, eta emakumezkoak ere, denok ibiltzen gara batera.

A: Emakumezkoek dagokienez, lehen oso gutxi ibiltzen ziren boloetan. Batzuk bazenbiltzan, baina ez dakit lotsagatik edo zergatik, baina txapelketetara ez ziren joaten. Orain, ostera, dozena bat gutxienez ibiltzen da. Bestalde, txapelketetan kategoriak egoten dira eta gu jubilatua gara. Ba kategoria horretan 20 bat bolari ibiltzen gara, parte-hartzaile guztien % 30 inguru. Hori bai, jende gaztearekin lehian, aldea igartzen da. Bolatokian gu baino gehiago dira.

Asola Berriko bolarien artean nolako maila dago?

U: Ona! Normalean, txapelketetan beti egon ohi da Asola Berrikoen bat lehen sailkatuen artean.

A: Agian baten bati ez zaio esango dudana gustatuko, baina nire iritziz, hiru-txirlo mailan, Asola Berri bolaren sehaska izan da. Hemendik irten dira lehengo bolari onenak, oraingo gazteak ere onenetakoa dira... Txikitatik elkarteetan boloetan ibili izanez gero, igarri egiten da.

Gaur egun, zelan praktikatzen duzue? Entrenatzeko elkartzan zarete?

U: Domeketan elkartu ohi gara, baina gero eta gutxiago. Lehen, zapatueta eta domeketan etxera joan ezinda ibiltzen ginen, baina orain piskolabisa dagoen egunetan elkartzan gara bolak botatzeko.

A: Txapelketa dagoenean, tiraldiak zapatu arratsaldetan izaten dira eta batzuk eguerditik joaten gara entrenatzeko, zelan botatzen den ikusteko, eskua hartzeko...

Ekainaren 6an omenaldia jasoko duzue. Boloetan egiteari lagako diozuela esan nahi du horrek?



BIEK: Ezta pentsatu ere!

A: Ahal dudanera arte, boloetan egingo dut. Hori ikasi dut bizitzan eta asko gustatzen zait. Agian gero ez gara lehiatuko, baina zarata egitera joango gara.

Kirol honen enbaxadore ere bazarete.

A: Txapelketa batzuetan jendea gerturatzen zait aholku eske, nirekin asko ikasi dutela ere esan didate... Horrek poztasuna ematen dizu.

Hiru-txirloak zer eman dizue?

U: Giro sanoa egoten da beti, ez dago haserre handirik. Jokatzan dugu, batzuetan irabazi eta beste batzuetan galdu egiten dugu, denok gara lagunak...

A: Pike sanoa egoten da eta lagunak egiten dituzu. Lehiaketetan, zapatu eguerdietan joaten garenez, talde ezberdinetako 20 lagun inguru elkarrekin joaten gara bazkaltzera eta txantxetan ibiltzen gara. Lagun on asko egin ditut.

Nola biziko duzue omenaldiaren eguna?

U: Gauza arraroa da omenaldia jasotzea.

A: Urduritasun pixka bat sentitzen dut, baina eguna heltzeko desiatzen nago eta ondo pasatuko dugula uste dut. Ez dakit omenaldia merezi dugun, baina tokatu zaigu.

Giro ezin hobean aritu ziren barixakuan Altxorraren Bila

Hogeita hamar lagun aritu ziren joan den barixakuan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Altxorraren Bila ekintzan. Bero itzelari aurre eginez, primeran asmatu zituzten leku bakoitzean eman zitzaizkien pistak. Errebal Plazan hasita lau puntutan gelditu behar izan zuten taldeek bertan azaltzen zizkietan probak zuzen betetzeko. Untzaga plazan amaitu zuten eta han jaso zituzten ondo merezitako dominak, diplomak eta gozokiak.



Gaur amaituko da “Nirekin hasi euskaraz” kanpaina

Bi astez luzatu da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako “Nirekin hasi euskaraz” kanpaina, 18an hasi eta gaur bukatuko da. Eibarko ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko pentsatutako kanpaina izan da, herritarrak aktibatu nahi izan dituen: “Ostalaritzan jarri dugu oraingoan fokua baina herritarrak aktibatzea eta ahalduntzea garrantzitsua da. Bien inplikazioa ezinbestekoa da hizkuntza dinamika positiboak sortzeko eta euskaraz eguneroko bizitzan duen presentzia indartzeko”, euskara elkartetik diotenez. Guztira, herriko 27 tabernak hartu dute parte eta, oro har, “igarri da mugimendua, batzuetan besteetan baino gehiago baina jendea ibili da

pegatina soinean”. Taberna-giroa euskalduntzea ez da lan erraza eta horren jakitun dira elkartean ere: “Ez da egun batetik bestera lortu daitekeen zerbait. Hizkuntza ohituretan eragitea izan da gure helburua, lehen hitzari edo agurrari garrantzia eman nahi izan diogu, azken batean, euskaraz egindako hitz bakar batek ondorengo elkarrizketa alda baitezake”. ...eta kitto! Euskara Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie kanpainen parte hartu duten tabernari eta herritarrei, “Eibar euskaldunagoa izatea guztion ardurua da-eta”.

Bestalde, Eibartik kanpo ere oihartzun handia izan du kanpainak eta aste honetan ETB1-eko Biba Zuek saioan izan gara ekimenaren berri ematen.



DJ Mitxelek agurtuko du Berbetan egitasmoen ikasturtea

Ekainaren 11n, eguena, jaialdi bereziarekin esango diote agur ikasturteari ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen dituen Berbetan egitasmoek. Horretarako, udazkenean Eibarren izan genuen DJ Mitxel etorriko da berriro gurera eta Disko Arima ikuskizuna eskainiko du, 17:30etik aurrera Errebal Plazan. Ordubate inguru iraungo du musikaz eta koreografiak beteriko ikuskizunak. Sarrera libre da.

GAZTETXE baten KRONIKA

Ilusioz zabaldu zuten atea 2011ko irailean. Indarrez itxi dute 2026ko maiatzean. Tartean, 15 urteko bidea egin du Eibarko Gaztetxeak: autogestioa ardatz, kolorez, musikaz, aldarrikapenez eta auzolanez betetako urteak.



2011 OKUPAZIOA

Atea izan da eraikinaren irudi esanguratsua. Hiru urte lehenago, Cadenas Iris tallarreko langileak sartzen ziren handik barrura; gero, gazteak, asanbladara, kontzertuetara edo ekintzak prestatzera. Joan den astean, berriz, adreiluz itxi zuten sarrera bera, ertzainek ingurua zaintzen zuten bitartean. Irudi horrek laburbildu du askorentzat gaztetxearen amaiera: ilusioz irekitakoa, indarrez ixtea.

2011ko abuztuan okupatu zuten Iparragirre kaleko eraikina, Asua Errekako gaztetxea hustu eta hilabete gutxira. Gazte talde batek hartu zuen espazioa, instituzioetatik kanpo eta autogestioaren aldeko apustua eginez. “Eibarren erabili bariko espazio mordua dagozela pentsatzen dogu eta horretako bateri bizitasuna emoteko aukeria ikusten genduan”, zioten orduan, ...eta kitto!-n argitaratutako kronikan. Lehen egun haietan, garbiketa eta txukuntze lanen artean, ilusioa zen nagusi.

Ordutik, belaunaldi askoren topagune izan da gaztetxea. Kontzertuak, bazkariak, hitzaldiak, tailerrak, zine emanaldiak, asanbladak, manifestazioak eta eztabaidak hartu ditu bere hormen artean. Gazte askorentzat lehen aldarrikapen espazioa izan da; beste askorentzat, berriz, herrian bestelako kultur ekintzak eta politika egiteko modu baten erakusleho.

→ 2017
GAZTETXE
EGUNA



Hamarkada eta erdian, ekintza eta jarduera askotarikoak egin izan dira bertan. Egun osoko egitarauak, kontzertu ugari, asteroko asanbladak, topaketa desberdinak, aurkezpenak... Azken egunetara arte, bizirik egon da espazioa.

↓
MATERIALA



2026 DESALOJOA

Baina joan den astean iritsi zen desalojoa. Ondorioz, bertan behera gelditu dira astebururako iragarrita zituzten ekitaldiak ere. Ertzaintzak eraikina hustu zuen goizean, eta arratsaldean dozenaka herritar elkartu ziren protestan. Ondorengo manifestazioan ere gaztetxearen aldeko aldarriak bete zituzten kaleak. Ez ziren gutxi izan espazioaren alde kalera atera ziren gazteak.



MOBILIZAZIOA

Orain, adreiluz itxita dago atea. Baina 15 urtean barruan bititakoak nekez itxiko dira horma artean.

Mobilizazioan asanbladako kideek argi utzi zuten espazio bat baino gehiago izan dela gaztetxea: “Hemen sortu dira harremanak, borrokak eta ametsak. Gaztetxia ez delako eraikin bat soilik, herri honetan antolatzeko eta bizitzeko modu bat baizik”.



Zer bota nahi dute?

Zer bota nahi dute? Eraikin bat? Gaztetxe bat? EZ. Udaletxeak ederki planifikatu duen herri eredu ustel honetan ez dago lekurik autogestioa eredu duen gune baterako. Ez dago lekurik politikoki eta sozialki konprometiturik dagoen espazio batentzako. Herritar ororentzat kultura eta jakintza eskuragarria eta kritikoa eskaintzen duen gune batentzat. Eta bai, Eibarren behar-beharrezkoak ditugu horrelako lekuak, denok, gazte zein heldu, gure espazio propioak sortu, garatu, eta gure bizitzen jabeago izan gaitezen.

15 urtean zehar sortutako amets, ekimen eta proiektuak ateratzeko 40 minutu justu utzi; gehienez 3 pertsona “2 chicas y un chico” eta bakoitzak ertzein bat alboan edukiz, ondoren “has tenido tiempo de sacar las cosas” entzuteko, eta nola ez, dena erdera hutsean, indar poliziek duten jarrera ikusita, dagoeneko harritzen ez gaituen zerbait. Aurre abisurik gabeko kaleratze ilegal batek ez du inongo eraginik izango hau aurrera eraman dutenentzat, hori argi dago, baina honen aurrean ez gara besoak gurutzatuta geratuko.

Lotsa besterik ez lukete eduki behar toki denetara argazkitxoak ateratzera joaten diren horiek, Eibarren egin diren obra publiko eta pribatu gehien exekutatuak beti berdina direnean. Argi geratu da berriro ere Eibarren nork duen boterea eta beste askok zeri dioten beldur.

Horregatik diogu inoiz baino argiago gune autogestionatuak defendatuko ditugula, hemen zein Euskal Herriko eta mundu osoko beste hainbat lekutan egin den bezala, boterearen eta espekulazioaren zentzugabekeriaren aurka.

EIBARKO GAZTETXIAK aurrera darrai, autogestioak aurrera darrai, eta beti bezala, bertan burutzen diren ekimenetan parte hartzeko dei bat luzatzen dizuegu Eibarreko zein inguruetako herritar guztioi. Zuentzako ateak irekiak izango dira.

Hurrengo asanblada irekia ekainaren lehen 19:30ean izango da gaztetxe atean.

“Argi geratu da berriro ere Eibarren nork duen boterea eta beste askok zeri dioten beldur”

Eibarko iraganari esperientziatik begiratzen

Aurreko barixakuan, maiatzaren 22an agurtu zuten ikasturtea Debarreneko Esperientzia Eskolako ikasleek, Portalea kultur etxeko areto nagusian ospatutako ekitaldian, eta bertan eman zuten ezagutzera kurtsoan zehar ikasleek landutako proiektua: gaurtik hasita Untzagako gizarte etxean bisitatu ahalko den *Eibarko iragana iruditan* izeneko erakusketa.

Testua eta argazkiak **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



Ermua, Elgoibar eta Eibarko hemezortzi ikaslek osatzen dute kurtsoa amaitu berri duen Debarreneko Esperientzia Eskolako 21. promozioa, eta barixakuko klasusura ekitaldian jaso zituzten diplomak. Marian Malaxetxebarría Ikasten elkarteko partaideak aurkeztu zuen ekitaldian Jon Iraola Eibarko alkateak, Merche Arriola Ikasten elkarteko presidentek eta 21. promozioako hiru ikaslek, Ana Garate, Arantza Quintano eta Aitor Amuategik hartu zuten parte, eta azken hauek azaldu zuten kurtso honetan landu duten proiektu soziala, *Eibarko iragana iruditan* izenekoa: “Ikasturte honetako proiektua erakusketa bat da, eta bertan Eibarko txoko esanguratsua erakutsiko ditugu, begirada bikoitz batetik abiatuta: Angel Guenaga artista eibartarraren artelanak, iraganeko irudiekin konbinatuta. Guenagaren 12 lan aukeratu ditugu, eta bakoitzaren ondoan kokapen bera erakusten duen antzinako argazki bat erakutsiko dugu. Horrela, Eibarren eraldaketa nabarmenduko dugu, eta gure herriko arte piktorikoari eta ondare fotografikoari balioa emango diegu”.

Eibarko iragana iruditan. Angel Guenaga margolariaren begirada, antziñako argazkiekin jolasean izenburupean, gaur (barixakua, hilak 29) zabalduko dute erakusketa, Untzaga gizarte zentroko Jose Ai-




Eskualde osoko hemezortzi ikaslek osatzen dute Debabarreneko Esperientzia Eskolako 21. promozioa. Beste edozein eskolan ez bezala, ikasle hauek penarekin agurtu dituzte klaseak, eta batek baino gehiagok dio kurtsoa gustora errepikatuko lukeela.

ras aretoan, eta bertan egongo da ikusgai astebetez, ekainaren 5era arte. Astelehenerdik barixakura bitartean 19:30etik 21:00etara bisitatu ahal da eta asteburuan, berriz, eguerdian zabalduko dute bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

Ikasleen berbetan, “gurea proiektu iragankorra da, baina ziur gaude arrasto sakona lagako duela gutako guztiongan, eta erakusketa bisitatzen duten guztien oroimenean ere luzaro irautea espero dugu”.

Erakusketa prestatzeko, Angel Guenaga artista eibartarraren hainbat margolan aukeratu dituzte. Koadro guztiak 2005. urtean margotutakoak dira, eta guztiontzat oso ezagunak diren Eibarko kaleak eta tokiak erakusten dituzte: “Margotu zituenerako bere begirada, hau da, artistak Eibar nola ikusten zuen islatzen dute koadroek”. Koadro bakoitzaren aldamenean, toki bera erakusten duen antzinako argazkia egongo da ikusgai, “horrela, biak alderatuta, urtekin gure herriak izan duen bilakaera, nola aldatu den ikusteko”. Esperientzia Eskolako ikasleek eskerrak eman nahi dizkiote Angel Goenagari, baita bere familiari ere, koadroak lagatzeagatik, eta Eibarko Udal Artxiboari eta bertako arduradunari, argazkiak erakutsi ahal izateko laguntzarengatik.

Erakusketa ilusio handiarekin prestatzeko lanean aritu dira eta, diotenez, Guenagaren lanak herritar-



ren artean ezagutzera ematea da helburuetako bat. Horrekin batera, erakusketa dagoen aretoa “gure iraganarekin bat egiteko toki goxoa” izatea gustatuko litzaieke eta, horregatik, herritar guztiak bertara gonbidatu nahi dituzte.



Herriarteko eta 4 t'erdiko Txapelketak jasoko ditu Astelena frontoiak asteburuan

E.B. Pilota txapelketak une erabakigarrienera iristen ari dira eta Astelena frontoiak emozio handiko partidak jasoko ditu asteburuan.

Lehen zita gaur izango dugu, Eibarko Ibarra pilotaria Zarauzko Bidezabalen aurka arituko baita 19:30ean, 4 t'erdiko Txapelketako final zortzirenetan.

Domekan, ostera, Herriarteko Txapelketako final laurdenetako joaneko partidak jokatuko dira As-

telenan, 16:30etik aurrera. Bertan, Eibarko eta Bergarako pilotariak arituko dira nor baino nor kadete, jubenil eta nagusien mailan, eta itzulerako neurketak hurrengo astean jokatuko dira Bergaran.

Lehia garrantzitsuak jokatuko dira eta, beraz, Eibarko Klub Deportivo boko pilota batzordeak jendea animatu nahi du "frontoira gerturatu dadin herriko pilotariak animatzera".

Urtzi Rugby Eguna ospatuko da bihar Unben

E.B. Urtzi Abanzabalegi Aranzabal "errugbi zale eta lagun maitearen omenez", Urtzi Rugby Eguna antolatu dute biharko. Egitaraua 10:00etan hasiko da, ordu horretan batuko baitira Unben; eta ondoren, 11:00etan, errugbi partida egingo da. "Jokalarien parte-hartzea irekia izango da, hau da, jolasteko ez da zertan talde bateko kide izan beharrik", diote antolatzaileek. Taldeak zozketa bidez osatuko dira zelaian bertan. Partidaren ondoren, noski, hirugarren zatia egingo da Unbenko tabernan eta, gero, 14:30ean, bazkaria. Gainera, '3. Urtzi Rugby Eguna' dioten zapiak banatuko dira. Egitaraua amaituta, ospakizunek Euskal Jaian izango dute jarraipena.



Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa erabakiko duen jardunaldia jokatuko da bihar Azkoitian

E.B. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa amaitzeko jardunaldi bakarra falta denean, sailkapena gori-gori dago goiko postuetan. Bergaran jokatutako azken jardunaldian irabazi ondoren, Asola Berri taldeko Garikoitz Rodriguez sailkapen orokorreko 3. postuan dago eta txapela janzteko aukera izango du bihar, maiatzak 30, Azkoitiko Floreaga bolatokian.

Emakumezkoen sailkapenean, Asola Berriko Enara Montielek li-

dergoan jarraitzen du, bigarren sailkatuarekiko alde nabarmenarekin. Bikotekakoan, ostera, Bittor Ugarte-buru eta Bittor Astigarraga eibartarrek lehen postua galdu dute, baina egoerari buelta eman diezaiokete asteburuan. Gainera, eurak biak doaz 'edadekoen' sailkapenaren lehen bi postuetan; Astigarraga da liderra. Eta, taldekakoan, Asola Berri 2. postuan da San Joxepe A-ren atzetik, baina ez du oso urrun eta azken jardunaldira arte borrokatuko du.



Play-offera sartzeko mirariaren bila joango da SD Eibar, domekan, Castellóra

E.B. Bigarren itzuli zoragarriaren ondoren, SD Eibar Lehen Mailara igotzeko play-offean sartzeko ametsarekin iritsi da azken jardunaldira arte. Joan den domekan Cordobari Ipuruan 2-0 irabazi zion, baina arerioek ez zuten hutsik egin eta ia-ia mirari bat behar du talde eibartarrak.

Azken jardunaldia Castellonen aurka jokatuko du Eibarrek, domekan, 18:30ean. Armaginak ez dira bakarrik izango, ia 600 zaleturen babesa jasoko baitute Castalian.

Zuri-beltzak 6. postuan daude orain 69 punturekin eta Eibarrek nahita nahiez irabazi behar dio aurea hartu nahi badio, 67 puntu baititu. Irabazita ere, Eibarrek Burgosek zer egin itxaron beharko du, Gaztela Leongo taldeak gal-

du egin behar du-eta gorriurdin-ek sailkapenean aurea hartzeko. Hori betetzen bada, Eibarrek helburua lortuko du.

Beste aukera bat da Eibarrek irabaztea, Burgosek berdintzea eta Las Palmasek eta Malagak galtzea eta, horrela, lau taldeek 70 punturekin berdinduta amaituko lukete. Horrela, eta Las Palmasekin duen aurkako gol-averagea gaindituz gero (-3 da gol averagea), Eibar play-offean sartuko litzateke.

Las Palmasekin eta Malagarekin berdinduta geldituko balitz, play-offerako sartuko litzateke kanariarrekiko gol averagea gainditu behar gabe. Eta Las Palmasekin bakarrik berdinduta geratuz gero, bai beharko luke kanariarrek in-ten gol-averagea gainditzea.

Pala Txapelketaren finalak jokatuko dira bihar

E.B. Eibarko VI. Pala Txapelketaren finalak jokatuko dira bihar 11:00etatik aurrera, Astelena frontoian. Gainera, partidaren ondoren, luntxa eta txapel banaketa egingo da.

Bigarren mailako finalarekin emango zaio hasiera jaialdiari eta, bertan, Mikel Aparicio 'Txiplo' eta Jon Apraiz eibartarrak Andoni Ace-mel eta Xabier Barrenechea mutrikuarren aurka lehiatuko dira.

Final handian, ostera, Markinako Unai Egia eta Munitibarreko Asier Zugadi Soraluezko Ion eta Julen Gallastegiren kontra arituko dira. "Maila handiko finala izango da, ikustea merezi izango duena", antolatzaileen berbetan.

Deboraldi amaierara iritsi dira CD Urki-ren taldeak

E.B. CD Urki-ren talde gehienek agur esan diote denboraldiari joan den asteburuan. Oraindik amaitu ez duen bakarra infantilen taldea da, datorren asteburuan Torrelavegako San Bernabe Nazioarteko Txapelketan izango baita. Horrela, talde eibartarrak Elx CF, RC Alcobendas, CD Laguna eta CD Marina izango ditu arerio bere multzoan, baina txapelketan SD Eibar, FC Porto, AC Milan, Atletico Madril, Getafe CF, Sevilla FC, SC Braga, Yokohama FC, Osasuna, Alaves eta Real Betis bezalako taldeek hartuko dute parte.

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

gestilan
asesorea

Zezenbide 4 - behea
Tel. 943 20 70 02
Faxa. 943 20 87 92

gestilan@gestilan.es
www.gestilan.es



Izadi Flores, urrezko domina eta Euskadiko txapelduna Eskolarteko jokoetan

E.B. Joan den zapatuan, Euskadiko XLIII. Eskolarteko Kirol Jokoak jokatu ziren Irungo Plaiaundi atletismo pistan. Bertan, Klub Deportiboko Atletismo Eskolako Izadi Flores Azpitarte infantila Gipuzkoako selekzioarekin izan zen eta urrezko domina lortu zuen xabalina jaurtiketan (27 m).

Deporreko atleta federatuak, ostera, Arrasaten izan ziren lehian. 30 gradurekin eta eguzkipean,

atleta eibartarrek lan bikaina egin zuten eta Asier Andreuk, Elene Beitiak eta Sonia Mendyk euren marka pertsonal onenak lortu zituzten, 200 m-ko proban lehen biek (26,39s eta 26,68s, hurrenez hurren) eta pisu-jaurtiketan hirugarrenak (9,6 m).

Elene Arrazola 100 eta 200 m-ko probetarako faborittoa zen, baina ez zuen parte hartzerik izan lesio batengatik.

Bar Maren talde gonbidatuak irabazi zuen futbol zaletuaren Kopako finala

E.B. A zer anabasa bizi izan den futbol zaletuaren Kopako finalaren harira. Hasiera batean, Malape Taberna eta Bergara Pneumatikoak taldeek jokatu behar zuten finala joan den zapatuan, baina Bergarako Jaiak zirenez, azken hauek finala jokatzeari uko egin zioten. "Nazkagarriak", antolatzaileen berbetan.

Gauzak horrela, beste talde batzuei eman zitzaizen finala jokatze-ko aukera eta azkenean Bar Maren

aritu zen bertan. Jokatu eta irabazi, ezustekoa emanez. Izan ere, talde gonbidatuak Malape Ligako txapelduna zuen aurrean, baina Robertoren golari esker Maremek altxa zuen kopa.

Liga eta Kopa txapelketak amaituta, Ermuko eta Eibarko Liga txapeldunen arteko partidarekin amaituko da aurtengo denboraldia. Ermuko Inter CF eta Malape arituko dira nor baino nor, bihar, 10:30ean, Unben.

Ronin borroka klubak 10. urteurrena ospatu zuen

E.B. Ez beroa ez gaztetxearen desalojoak, ezerk ez zen nahikoa izan Ronin borroka klubaren 10. urteurrenaren ospakizuna zapuzteko. Zapatu goizean, borroka egiteko tokia Asua Errekako lokaletik Urkizuko parkera atera zuten eta ikuskizuna eskaini zuten Ronin-ekoek, gimnasioan egiten dutena erakusteko.

Arratsaldean, Gaztetzera jo behar zuten pintxadaz eta kontzertuez gozatzera, baina joan den egunean Gaztetzera desalojatu egin zuten eta FREDIY skateparkekoek euren tokia laga zieten horretarako. Beraz, ez zen muskarik falta izan eta 10. urteurrenaz ederki gozatu ahal izan zuten.



Eibar Igerixanekoak Txantxiku Sarian izan ziren

E.B. Joan den asteburuan Oñatiko Zubikoa polikiroldegian Txantxiku Sariaren edizio berria jokatu zen, eta bertan Eibar Igerixaneko benjamin eta alebin mailako igerilariek hartu zuten parte. Emaitzez harago, "jardunaldiak talde giro bikaina, txiki-ilen ilusioa eta lehiaketa osoan erakutsitako jarrera aparta utzi zituen berriro ere", Eibar Igerixanekoen berbetan. Klubak ordezkaritza zabaldua izan zuen, oinarritzko taldeetan egiten ari den lanaren eta hazkuntzaren erakusgarri.



zuten, baita Erga ere, eta paisaia zoragarriaz gozatu zuten Latasara iritsi arte.

Hiru proposamen

Proposamenei dagokienez, bate-tik, Obarenses mendietan (Burgos) egin daitekeen “zeharkaldirik erakargarrienetako bat” egiteko aukera emango dute Deporrekoe ekainaren 6an. Orbañanosen hasi, Union igo (1.437 m) eta Friasen amaituko da ibilbidea. “Paisaia zoragarriak ikusteko aukera paregabea izango da”, Deporrekoen berbetan. Horren ondorioz, Trabuko Bidearen 5. etapa uztailean egingo dute.

Bestetik, eta oraindik informazio gehiago bidaliko diguten arren, ekainaren 7an Finalista Eguna egingo dela aurreratu digute Deporrekoe.

Eta proposamenekin amaitzeko, Deporrek eta Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkarteak Pirinioetara irteera antolatu dute ekainaren 13 eta 14rako. Gabardito – Arlet – Ozako oihana ibilbidea egingo dute bi eguneko eta gau bateko ibilaldian. Izena emateko: www.deporeibar.com.

Trabuko Bidetik Burgosera eta Pirinioetara joko dute Deporrekoe

E.B. Klub Deportiboko mendiza-leak martxa betean ari dira. Joan den zapatuan, maiatzak 23, giro eguzkitsu eta beroarekin, Trabuko Bidearen 4. etapa egin zuten Larunbetik Latasara, eta datozen asteburuetarako beste irteera proposamen batzuk dituzte.

Guztira, 42 lagunek hartu zuten parte Trabuko Bidearen 4. etapan eta, Antxon Narbaizak bidalitako kronikaren arabera ([\[to.eus\]\(http://to.eus\) webgunean duzue irakurgai\), giro onean egin zioten aurre. Gainera, bidearen zati bat basoan barrena egin zuten. “Eskerrak! Horrela bero sargoria ekiditen joan ginen”, diosku.](http://www.etakit-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Larunben hasi ondoren, San Vicente eliza erromanikoa “miretsi” zuten, Harriaundi tontorra pasa, Larrahe baskoien jainkosaren estela ikusi, Muskiz “herri txukuna” zeharkatu eta Artola mendira igo



LAMINAZIOZ EGINIKO ZEHAZTASUN HANDIKO HARIAK

BULOI ETA TORLOJUAK HUSILO ETA AZKOINAK



Erisono Industrialdea, 3
20600 Eibar
tlf. 943 121 308
943 121 312
www.rlapeyra.com



'Sua Untzaga Plazan' kartelak (erdian) iragarriko ditu aurtengo San Juan jaiak. SILBIA

Sanjuanetarako programazioa aurkeztu du Udalak

Ekaina osoa beteko du San Juan jaietarako egitarauak aurten ere. Atzo egin zuten horren aurkezpena Jon Iraola alkateak, Andoni Zabala kultura zinegotziak eta Patxi Lejardi jaietako zinegotziak, eta ekitaldi berean eman zituzten ezagutzera aurtengo kartel lehiaketan saritutako lanak.

SILBIA HERNANDEZ

2026ko sanjuanetako irudi ofiziala izango denaren egilea Maria Ortiz Baños da, berak irabazi baitu Eibarko Udalak antolatzen duen lehiaketako sari nagusia, *Sua Untzaga plazan* izeneko lanarekin. Horrez gain, 11-14 urte bitarteko kategorian, Maria Gisasola Paulavets saritu dute, *Sanjuanak peto gainean* kartelarengatik; eta 10 urtetik beherako kategorian, berriz, Gaizka Alberdi Rodriguez, *Sua jaietako protagonista* lanarengatik. Bestetik, pegatina lehiaketako irabazlea Joseba Imanol Vilas

Molina izan da, *Jaiak bai, mozkortzeari jai* izeneko lanarekin. Aurkezpenarekin hasi aurretik, Jon Iraola alkateak Udalaren eta Eibarko elkarte-sarearen arteko lan-kidetzak ahalbidetzen duen jaien izaera kolektiboa nabarmendu du: "Aurten ere egitarau zabala aurkeztuko dugu, herrian hilabete osoan zehar giro ona egon dadin pentsatutakoa eta, era berean, denontzako espazioa eskainiko duena".

Datorren egunean, ekainaren 4an, abiatuko da jai-egitaraua, Nele Dantzak Coliseon aurkeztuko duen ikuskizunarekin. Beste

bi emanaldi egingo dituzte, bariakuan (ekainak 5) eta zapatuan (ekainak 6). Egun horretan Minbi ziaren Aurkako bosgarren Martxa egingo da, goizez; eta arratsaldean, berriz, Maite Lorenzok zuzendutako gau poetikoa, Ibarkurutzeko iturrian.

Hortik aurrera, ekitaldiz betetako agenda izango dugu Eibarren: Musika Eskolako taldeen kontzertuak (ekainak 11 eta 12), KOA dantza-taldekoen emanaldiak, Kezka Dantza Taldeak antolatzen duen Dantzari Eguna (ekainak 12) eta Boxeo-gaua (ekainak 12), batzuk aipatzearen; zapatuan (ekainak 13) VI. Futbol 7 Kuadrillen Txapelketa, XXXVIII. Eibarko Hiria Bolo-Palma Txapelketa, Isabel Laspiurren ikasleen piano-kontzertua, Break Dance eta New Style dantzen XI. Txapelketa... Eta, eguna primeran amaitzeko, iaz arrakasta handia izan zuen formatu handiko musika-proposamena prestatu dute: *LOS40 Sessions Eibar*, Jesus Taltavull DJ-arekin. Domekan, ekainak 13, urtero antolatu ohi dituzten kirol-probak jokatu dira: XC. San Juan Txirrindularitza Sari Nagusia eta IV. Billar Txapelketa. Gainera, Estidantzak saioa eskainiko du.

Sokamuturra Untzagan

Bestela, jai-egun nagusietan ez da aldaketa nabarmenik izango, beritasun bat salbu: gazteek urteetan eskatzen aritu eta gero, aurten sokamuturra egongo da, hiru egunetan: ekainak 21, 24 eta 25ean. Untzagan egingo da, 08:00etan, txokolate eta guzti.

Datorren asteko astekarian eta hurrengo zenbakietan joango gara egitarau osoaren berri ematen eta, bien bitartean, www.etakitto.eus gure webgunean irakurri ahalko duzue, osorik.



Euskara ikasteko eskaintza zabalda Eibarko euskaltegietan

S.H. Uda euskara ikasteko sasoi aproposa izaten da askorentzat eta, aurten ere, ikastaro bereziak prestatu dituzte Eibarko Udal Euskaltegian eta AEK Euskaltegian. Horrela, Udal Euskaltegiak HABEren azterketa prestatzeko ikastaroak emango ditu uztailean nahiz irailean, aurrez aurrekoak (B2 eta C1 mailetan) eta autoikaskuntzakoak (B1, B2 eta C1 mailetan). Uztailko ikastaroetarako izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 16ra arte. Informazio gehiago 943700912 eta 688698566 telefonoetara deituta, edo euskaltegia@eibar.eus helbidera idatzita.

AEK Euskaltegian euskara ikastaro trinkoak egiteko aukera egongo da, ekainaren 26tik uztailearen 23ra bitartean (80 ordu). Gogorarazi dutenez, aurten dirulaguntza berezia dago batxilergoko ikasleentzat (16-18 urte), eta C1 maila prestatzeko ikastaroa 48 euro soilik ordaindu beharko dute. Horrez gain, irailean ere ikastaro laburra eskainiko dute, HABEren azterketako idazmen atala prestatzeko. 2026-2027 ikasturterako aurrematrikulazioa zabalik dago, eta ekaina osoan zehar egin ahalko da. Informazioa eskatzeko 940 20 13 79 telefonora deitu edo eibar@ae.eus helbidera idatzi daiteke.

Domekan egingo da Argazki Rallya

S.H. Klub Deportiboak antolatutako *Argazkilaritza Maiatzean* agurtzeko, Argazki Rallya antolatu dute domekarako (maiatzak 31). Zuri-beltzean zein koloretan lehiatu daiteke, eta egunean bertan eman daiteke izena, Klub Deportiboan (08:30etik 09:30era). Hainbat sari banatuko dira. Oinarriak ikusteko: deporeibar.com.



‘Xerka’ proiektuari buruzko hitzaldia eta erakusketa

S.H. Euskal Herriko landa-eremuko bost pertsona queerren bizipenak, hausnarketak eta sentsazioak biltzen dituen *Xerka* fotokazetaritza proiektuari buruzko hitzaldia eta erakusketa antolatu ditu Andretxeak. Martxel Larraz eta Joseba Olagarai kazetariak egunean (ekainak 4) emango dute hitzaldia, euskaraz, 18:00etan, Andretxean. Eurekin batera, Nora Santos Loiola eta Ainhoa Azkue Leiza herritarrek euren lekukotza eskainiko dute. Erakusketa solasaldiaren ondoren zabalduko dute eta ekainaren 10era arte egongo da ikusgai, Andretxeko “Damaskinatzaileak” erakusketa-gelan.

Saguzarren Gaua ekainaren 5ean

S.H. Ekainaren 5ean (zapatua) *Saguzarren Gaua* ospatuko da Estixa parkean (Arraterako bidean), 21:00etan, Eibarko Baso Bizia-ek-en eskutik. Erakusketa txiki baten eta detekzio-ibilbide labur baten bidez, saguzarren garrantzia ezagutzeko aukera izango da. Jarduera Eibarko Udalarekin batera antolatu dute.



Zabaldute Kezkaren dantza eskolan aritzeko izen-ematea

S.H. Kezka Dantza Taldetik kudeatzen duten Dantza Eskolan 2026-2027an jarduteko izen-ematea zabalik dago, nagusientzat zein haurrentzat (2022ean jaiotakoetatik aurrera). Izena emateko kezka@dantzan.com helbidera idatzi behar da, ikaslearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta jaiotze-data adieraziz (nagusiek aukeratutako ordutegia ere). Informazio gehiagorako helbide horretara idatzi ala 605711429 zenbakira deitu.

ERRAZA

	5	3	7				9	
		6		9		8		
	7				1			5
	4	9			6			
	8							1
			5			9	8	
2			9					4
		4		5		1		
	9				7	6	5	

SUDOKUA

3	9	7	2	4	8	1		
7	3	4	6	5	8	1	2	9
8	2	1	3	1	3	7	4	8
8	8	6	6	4	7	4	4	8
9	8	7	2	3	6	9	1	4
5	4	8	4	1	1	8	2	3
7	2	1	8	6	9	6	5	4
5	9	6	1	1	3	3	6	6
4	1	6	3	9	5	8	7	2
8	5	3	7	6	2	4	9	1


1	4	8	1	9	7	6	2	5	3
1	4	7	3	8	7	6	2	9	8
9	8	5	6	2	2	9	3	5	6
2	3	4	5	1	6	9	7	8	3
7	8	9	7	1	6	5	4	2	8
5	9	8	7	3	2	1	4	6	9
6	7	1	6	4	8	2	5	3	2
4	1	3	8	6	7	5	6	2	1
7	6	9	2	5	4	3	1	8	5
8	2	5	1	6	3	7	4	9	1

ZAILA

				3		7		
	6			5				8
			8	7	5	6		
					2	5		
		8	7		2	1		
3	4							
8	6	4		1				
1				8				2
5		6						

LABIRINTOA

SARRERA



Maiatzak 29 - Ekainak 4

BARIXAKUA 29

EUSKAL JAIA

19:00/21:30 Kale animazioa: bertso-triki poteoa, Mausitxa Txaranga, txistulariak eta Eibarko Gaiteroak. Herriko kaleetan zehar. **22:00** Kontzertua: Sorotan Bele gogoan eta Eibarko Musika Banda. Untzaga (eszenatokia).

ZAPATUA 30

EUSKAL JAIA

09:30/14:30 Artisau eta Baserritarren Azoka, Eibart, Eibarko Baserritarrak eta Debemen elkartearen eskutik. Talopostua, Gure Esku Dago-ren eskutik. Toribio Etxebarria kalea. **11:00/13:00** VI. Pala Txapelketaren finalak. Astelena frontoia.

11:00/12:30 Herri-kirolak. Untzaga Plaza.

12:00/15:00 Kale animazioa: txistu poteoa, Tolosako Gaiteroak eta Bentazaharreko Mutiko Alaiak. Herriko kaleetan zehar.

12:15 Euskal Jaiko kalejira, dantza ikuskizuneko talde guztiekin: Gaiteroak, Eibarko Txistulariak, Eibarko Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak, Haritz, Gure Kai, Txindurri, Gorosarri eta Kezka dantza taldeak. Errebaletik Untzagara.

12:15 Euskal Jaiko dantza jaialdia: "Gerrako Gure Ibilerak Dantzan", Joseba Tapia, Haritz, Gure Kai, Txindurri, Gorosarri eta Kezka dantza taldeekin. Untzaga.

15:00 Kantu-bazkaria. Errebal Plazia.

18:00 Kalejira, Errebaletik Deportibora.

18:15 Dantzaldia, Eingo tal-

dearekin. Depor parean. **20:00** Larraindantza herrikoia. Depor parean eta, ondoren, Kultu aurrean.

20:30 Binilo "pintxada", Iskra Selectors-en eskutik. Depor parean.

23:00 Kontzertuak: Itziarren Semeak eta Mugi Panderroa. Untzaga (eszenatokia).

URTZI RUGBI EGUNA

10:00 Unben elkartzea. **11:00** Lagunarteko partidua, Unben. Gero, 3. denbora, tabernan. **14:30** Bazkaria. Unbe.



MINBIZIAREN AURKA

11:00/14:00 Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak boluntarioak martxan parte-hartzeko dortsalak eta kamisetak saltzen egongo dira. Guridi taberna pareko arkupeak.

DOMEKA 31

ARGAZKI RALLYA

08:30/14:00 Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen "Argazkilaritza Maiatzean" egitasmoaren baitan. Oinarriak: hhargazki.eus eta deporeibar.com webguneetan. Klub Deportibotik abiatuta.



ASTELEHENA 1

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.



MARTITZENA 2

HERRITU

18:30/19:30 Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

EGUAZTENA 3

DANBORRADA

19:15 Sanjuanetako danborradarako entsegua (haurrak). **20:15** Helduen entsegua. Errebal Plazia (eraikin barruko lokaletan).

EGUENA 4

HITZALDIA

18:00 Euskal Herriko landa-eremuko bost pertsona queerren bizipenak, hausnarketak eta sentazioak biltzen dituen Xerka proiektuari buruzko hitzaldia, Martxel Larraz eta Joseba Olagarairen eskutik. Gonbidatuak: Nora Santos Loiola eta Ainhoa Azkue Leiza. Euskaraz. Jarraiera irekia eta doakoa. Andretxea.

SOLASALDIA

18:30 "Etxebizitza merkatuak huts egin du", Oskar Matuteren eskutik. Gaztelaniaz. EH Bilduk antolatua. Portalea

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 29tik ekainaren 5era

Eibarko iragana iruditan. Angel Guenaga margolariaren begirada, antziniako argazkiekin jolasean, Esperientzia Eskolako 21. promozioiko ikasleen proiektua.

Untzaga Gizarte Etxea.

Maiatzaren 31ra arte

Argazkilaritza Maiatzean Eugenio Fieni-ren "Nenet herria. Bizitza Artikoan"; Jaime de Prado; Angel J. Sanchez-en "Babel"; eta Argizaiola. Portalea. SFG Trofeo Gipuzkoa. Topaleku. Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistain: "Tenerife". Portalea taberna.

Ekainaren 4tik 10era

"Sexilioa: Euskal landa-eremuko LGTBQ+ komunitatearen bizi-esperientziak" argazki erakusketa. Andretxea ("Damaskinatzaileak" erakusketa-gela).

Ekainaren 4tik 16ra

Eibarko Udal Zeramika eta Dibujo Eskoletako ikasleen lanak. Portalea.

ZINEA COLISEO



"Michael"
DRAMA

2026/AEB/127'
Zuzendaria: Antoine Fuqua
Aktoreak: Jaafar Jackson, Nia Long, Colman Domingo.
Biografikoa. Musikala

1 ARETOA

- **30ean:** 17:00
- **31an:** 17:00

ANTZOKIA

- **30ean:** 19:30, 22:30
- **31an:** 20:00
- **1ean:** 19:30



"La chica del coro"
AKZIOA. THRILLERRA

2025/Eslovenia/89'
Zuzendaria: Urška Djukić
Aktoreak: Jara Sofija Ostan, Mina Švajger, Saša Tabaković.
Erlijoa. Nerabezaroa. Sexualitatea eta pornografia

1 ARETOA

- **30ean:** 19:45, 22:30
- **31an:** 20:00
- **1ean:** 19:30



"Love me tender"
DRAMA

2025/Frantzia/134'
Zuzendaria: Anna Cazenave
Cambet
Aktoreak: Vicky Krieps, Antoine Reinartz, Monia Chokri.
Amatasuna. Homosexualitatea. Aitatasuna

2 ARETOA

- **30ean:** 19:30, 22:30
- **31an:** 17:00
- **1ean:** 19:30




"Mortal Kombat II"
AKZIOA. KOMEDIA

2026/AEB/116'
Zuzendaria: Simon McQuoid
Aktoreak: Karl Urban, Adeline Rudolph, Jessica McNamee
Arte-martzialak. Bideojokoa

ANTZOKIA

- **30ean:** 17:00
- **31an:** 20:00



"Fleak"
ANIMAZIOA. ABENTURAK

2025/Finlandia/83'
Zuzendaria: Jens Møller.
Munstroak. Dibertsitate funtzionala. Haurtzarora

ANTZOKIA

- **30ean:** 17:00
- **31an:** 17:00

FUNEUSKADI
Grupo Asistira

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK

EZKONTZETARAKO LORAK

ZENTROAK

ERRAMUAK

Enkarquak etxera

LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

merchandising serigrafia lanerako erropa

osagarrien pertsonalizazioa

www.publiresa.com
943 701 497 / 687 879 667

Armagin 3-5 behake
publiresa@publiresa.com

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **ANNE** Lasuen! Maiatzaren 19an 9 urte bete zenduaz eta. Patxo potolua aitatxo, amatxo eta, batez de, Markelen partez. Askok maite zaittugu.



Zorionak **MAREN-TXITA!** Martitzenian, hilak 26, 11 urte bete zenduaz. Patxo potolo bat etxekuen partez!



Zorionak **KEPA!** Martitzenian 4 urte potolo bete zenduaz. Etxeko txikixa haunditzen doa. Besarkada erraldoi bat danon partez.



Zorionak **LUKA!** 3 urte polit bete dozuz. Segi hain alai eta maitagarri. Askok maite zaittugu.



Zorionak **MIKEL!** Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak **NIKOLE!** Martitzenian 5 urte bete zenduaz. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Martinen partez.



Zorionak **OIHAN!** 9 urte jada. Besarkada erraldoi bat famelixa guztixan partez, eta zuk diotzun modura 6-7!



Zorionak **SARE** eta **MAIDER!** Haunditzen haunditzen neska zoragarriak! Musu haundi bana.



zarelakogara

Zure pausoak indartzen du euskararen bidea.
Batu zaitetz eta egin dezagun Eibar euskaldunagoa.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

BAZKIDETZA KUOTAK (URTEKO)

- Umeak (16 urtetik behera): urtean 5€
- Ikasle, langabetu eta jubilatuak: urtean 20€
- Langileak: urtean 50€

*Errenta aitorpenean %30 itzuliko zaizu



euskararen elkartea



Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Benidorm. Udarako zein negurako etxebizitza alokatzen da. Gutxienez 15 eguneko egonaldiak. Hondartzatik eta erdigunetik gertu. Kanpoko nahiz barruko igerilekua. Gara-jea barne. Aukera ezberdinak aztertzen dira. Informazio gehiago: 667244733.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Juan Gisasola kalean, probaderoaren azpian. 686633523.

4. LANA

4.1 Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Externa, interna, asteburuetan edo orduka. 688740201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Externa, interna, asteburuetan edo orduka. 602715786.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko, baita asteburuetan ere. Ziurtagiri soziosanitarioa. 632624579. Karina.
- Mutil gaztea eskaintzen da edozein lan motarako. Garbiketa lanetarako, ileapaindegietan lan egiteko edota eraikuntzan lan egiteko. 632721342.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko, pertsonak zaintzeko edota tabernan lan egiteko. 631020887.
- Emakumea eskaintzen da na-

gusiak edota umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Ziurtagiri soziosanitarioa. 633597550.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka, ospitale edota etxeetan. Baita garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 667060292.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da pertsona nagusi bat gauetan zaindu eta laguntzeko, paperak eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. Esperientzia baloratuko da. 618156833.
- Fisioterapeuta eta estetizista behar da Eibarko ileapaindegi batean. 943208125.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Behin erabilitako Magasa emakumezko baserritar jantzia salgai prezio erdian. 14 neurria. 658714437.

6.4. Bestelakoak

- Dokumentu pertsonalak aurkitu dira Coliseo inguruetan. Berreskuratzeko deitu hona 690311429.
- Euskal Jaiko bazkarirako 3 ticket erosten ditut. Irati. 688666116.

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clínica estética

MEDIKUNTZA ESTETIKOA
Dermatologia estética
Aurpegia gaztebera
Batsada
KIRURGIA ESTETIKOA
Biefazcalasia eta aloplasia
Liposutsoak
Kirurgia Intima



Egiguren, 6 - Behea 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta Zbis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



OKULISTAK



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

•Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

PODOLOGOAK




BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOAK

Maidier
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOLOGOAK



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



DEVI OM

YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

Euskeraz
primeran!

NIREKIN

JARRAITU

~~**HASI**~~

EUSKARAZ

Euskeraz
primeran!